ARABA A•17

# Izki



**Bertan hirigunerik ia ez egoteak** eta komunikazio–bide handietatik urrun egoteak eragin du gune hori egoera ia naturalean mantentzea, aldaketa handirik gabe jarraitzea. Izkiko bi heren hostozabalen basoek, batez ere ameztiek, betetzen dituzte, Europan dagoen harizti–mota horretako eremu garrantzitsuenetariko bat eta ondoen zainduenetariko bat osatuz. Hain ondo kontserbatu izanak eta bertako habitat anizkunek bertan fauna bikaina bizitzea ahalbidetu dute. Parkearen barruan kokaturiko hirigune bakarra Korres da. Haizpitarte ikusgarri batean kokaturiko herri horrek Erdi Aroko diseinua gordetzen du, neurri batean



## LANERAKO GAIAK

- Izki ibaia: ibaiak modelatutako paisaia. (haizpitarteak, sakanak).
- Ibaiertzeko flora eta fauna: haltzadia eta baso mistoa, urkidia. Arrain–komunitatea.
- Izkiko basoa: ameztia, pagadia, artadia. Espezieen identifikazioa.
- Ameztia: ezaugarri ekologikoak. Flora–osaera. Horri loturiko fauna.
- Zuhaixka–formako egiturak: ipuruaren eta ezpelaren garrantzi ekologikoa eta gune horretan dituzten erabilera tradizionalak.
- Arbola Bereziak. Antoñanako Hagina eta Ezkia: ekologia, erabilerak, bitxikeriak.
- Ekosistemarentzako arriskuak: basoko suteak. Erretako eremuen berriztapena: izan daitekeen landarediaren leheneratze–faseak.
- Usadio tradizionalak: artzaintza, baso–ustiapenak (herri–basoak, egur–azalera).
- Garapen jasangarriaren adibide bat: txilarra eta eztia (ezti–produkzioa Antoñanako erle–zentroan).
- Etnografia: irin–errota, Pipaoneko etnografia–museoa.
- Korres: Erdi Aroko herria: historia, hiri–egitura. Erdi Aroko beste herri batzuk.

FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala. (1998) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).